



Beldur Barik 2025

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Antolatzailea:



GOBIERNO VASCO

ASOCIACIÓN DE MUJERES VASCOAS

del País Vasco Unibertsitatea



AURKIBIDEA

ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?.....	3
LANEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK.....	4
BALORAZIO-IRIZPIDEAK.....	5
NORK ETA NOLA PARTE HAR DEZAKE?.....	6
NOLA AURKEZTU LANA?.....	8
LANAK AURKEZTEKO EPEAK.....	9
SARIAK.....	10
LEHIAKETAREN EPAITZA.....	11
LEGEZKO ALDERDIAK.....	12
ANTOLAKETA.....	14
I.ERANSKINA.....	15
II. ERANSKINA.....	16
III. INSKRIPZIO-KITXAREN ERANSKINA.....	17
IV. ERANSKINA: BALORAZIO-FITXA.....	18

ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?

Beldur Barik jarrerak “bere bikote edo bikote-ohiaren eskuz indarkeria fisikoa pairatzen duen emakume heldua”-ren estereotipoa gainditzea eskatzen du eta neska gazteek euren bizitzen esparru guztietan sufritzen dituzten indarkeria matxistaren manifestazio anitzak ikustarazteko lan egiten du, hauek euren eguneroko testuinguru eta esparru guztietan hautematen den desorekaren ondorio direlarik.

Beldur Barik jarrera gazteek sufritzen duten indarkeria matxistaren beste manifestazio batzuk (translesbohomofobia) hautematean ere datza.

Honetarako, irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da. eta indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste adierazpenak ematea ahalbidetzen duten faktoreen inguruan hausnarketa egiten du.

Erreferente positiboak erakustea du helburu: ahaldundutako neska indartsuak eta indarkeria matxistaren aurkako borroka aktiboan inplikatzaren diren mutilak, gizon zein emakumeei eragiten den indarkeri honen aurrean jarrera kritikoa erakutsiz.

- **Neskak:** indarkeria edo desoreka egoeren aurrean ahalduntze eta autodefentsa jarreraren erakusten ditu.
- **Mutilak:** Desoreken, kultura matxistaren eta indarkeria matxistaren aurrean jarrera autokritikoan, proaktiboan eta konprometituan erakusten ditu. Modu horretan, korporatibismo maskulinoa hausten du.
- Gorputzen, identitateen eta sexualitateen aniztasuna ikusarazten du.

Finean, Beldur Barik Jarrerarekin indarkeria matxistaren egoera ezberdinak identifikatu eta horien iturburura doa, indarkeria sortzen duten faktoreak identifikatuz eta hauei, jarrera kritiko batekin, aurre eginez. Planteatzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan daitezkeela erakutsiz.

LANEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

- Lan guztiak **ikus-entzunezko formatuan** aurkeztu beharko dira. Lanek **gehienez 3 minutuko luzera** izango dute, kredituak barne.
- **Lanek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote.** Aurkeztutako lanen edukiak helburuaren lorpenerako helburuarekin zerikusirik ez, edota beraren aurkakoa edota kalterakoa izanez gero, lehiaketa antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete. Ebazpena parte hartzaileei jakinaraziko zaie korreo elektronikoz.
- Proposamenak originalak izan beharko dute, **plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsona batzuei kopiatu gabekoak**. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion autoretza probak eskatuko dira. Era berean, ez dira onartuko adimen artifizialarekin sortutako bideoak, euskarriak, etab.
- Lanak ezin izango dira Beldur Barik programarekin lotuta ez dauden **beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan**.
- Lanak **euskaraz, gazteleraz, elebitan zein bestelako hizkuntzaren batean** aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelerazko azpigituluak badituzte. Euskararen erabilera positiboki baloratuko da.
- **Ikus-entzunezkoak azpigituluak eraman behar dituzte.** Azpigituluaren helburua irisgarritasun bermatzea da. Azpigituluak fondo beltzaren gainean eta hitzak zuriak izatea gomendatzen da.
- **Erabiliko diren musika eta irudiek autoretza eskubideetatik aske daudenak erabiltzea gomendatzen dugu** (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Autoretza eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte hartzaileek beraien gain hartzen dute bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartu ahal dituzten neurriak. Era berean, egiaztatzen bada jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.
- Bideoa webgunera igotzerako orduan **izen-emate fitxa** bete beharko da.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik Jarrera islatu behar dute, hau da, **indarkeria matxistaren mota ezberdinak erakutsi eta hauei, jarrera kritikoz, aurre egitea**. Harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakustea da Beldur Barik Jarrera. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, **mezuaren kalitatea** baloratuko da, nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka. Guzti hori, Beldur Barik jarrera aldarrikatzen gauzatuko da.

- Originaltasuna mezuak adierazterako orduan.
- Gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeriaren adierazpenak identifikatzeko gaitasuna.
- Aurkeztutako irtenbidearen ikuspegia eta tonua (Beldur Barik Jarrera, humorea, erantzun positiboak etab.).
- Positiboki baloratuko da, bai euskararen erabilera, bai euskarazko azpigituluak sartzea gaztelerazko audioa duten obretan.
- Hau da, erakutsi behar dute indarkeria matxistaren adierazpen mota guztiak...

NORK ETA NOLA HAR DEZAKE PARTE?

2-20 adin arteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.

Adinaren arabera bi kategoria nagusi daude, baina, aldi berean, partaide kopuruaren arabera aukeratu beharreko bi modalitate.

Honako hauek dira Beldur Barik 2025 Lehiaketaren kategoriak:

- **1. kategoria:** 12-16 urte beteko dituztenak (2013 eta 2009 urteen artean jaioetakoak)
 - **1.1. Talde lanak:** Talde lanetan, eskolan, hezkuntza ez ofizialean edo kuadrillan egiten diren lanek izango dute lekua, eta beraz talde prozesu eta hausnarketa horiei bide emango zaie.
 - **1.2. Banakako lanak:** Banaka egindako lanak hartuko dira aintzat.
- **2. kategoria:** 17-20 urte beteko dituztenak (2008 eta 2005 urteen artean jaioetakoak).
 - **2.1. Talde lanak:** Talde lanetan, eskolan, hezkuntza ez ofizialean edo kuadrillak egiten diren lanek izango dute lekua, eta beraz talde prozesu eta hausnarketa horiei bide emango zaie.
 - **2.2. Banakako lanak:** Banaka egindako lanak hartuko dira aintzat.

Taldea adin tarte ezberdinetako gazteek osatzen badute eta parte hartzaileen %40 17 urtetik gorakoak bada, lana zuzenean bigarren kategorian lehiatuko da.

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

I. eranskina edo II. eranskina beteta aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

- *I. eranskina. Norbanakoen baimena: ama/aitaren zein legezko tutoreen baimena adin txikikoek Beldur Barik programan parte hartu dezaten.*



- *2. eranskina. Taldekako baimena: ikasgela edo hezkuntza zentroetatik aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da. Aldi berean, zentroa bera izango da adin txikikoen baimenak kudeatuko dituen.*
- *Gaztelelekuak eta elkarteak: proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak batera aurkeztu beharko dira (1. eranskina).*

NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

1. Lanak plataforma hauetara igo beharko dira: Youtube, Tik Tok, Facebook eta Instagram. Plataforma horiek sortzen duten esteka da aurkeztu behar dena. Argitalpenak modu publikoan egin beharko dira, beraz parte hartzaileen sareetako profila publikoa izan beharko da (Instagram eta Tik Tok-en). Horrez gain, gomendagarria da Beldur Barik profila etiketatzea Tik Tok eta Instagram sareetako argitalpenetan. Era berean, gomendagarria da Youtube-ra igoetako bideoen deskribapenean, bideoaren izenburua eramatea, baita zein udalerritatik eta zein kategoriatik aurkezten den ere. Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.
2. Beldur Barik web orrialdean topatzen den Izen Emate Fitxan bete ezazu, www.beldurbarik.eus helbidean. Formulario horretan aurretik ikus-entzutezko plataformara igoetako bideoaren esteka jarri beharko da.
3. Formularioa osatu eta gero, izen ematea modu zuzenean burutu dela esaten duen mezua agertuko da.
4. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero programaren idazkaritza teknikoak egiaztatuko du oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen direla.
5. Egiaztatu eta gero, oinarriak beteko ez balitu idazkaritza teknikoak formularioan erraztutako emailera jakinarazpena bidaliko du. Onartutako lanak webgunean publikatuko dira.

LANAK AURKEZTEKO EPEAK

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea **2025eko irailaren 22an hasiko da, goizeko 08:00etan**, eta **2025eko azaroaren 9an bukatuko da, gaueko 23:59etan**.

SARIAK

1. kategoria: 12-16 urte beteko dituztenak (2013 eta 2009 urteen artean jaiotakoak)

Talde lanak 650 €

Banakako lanak 200 € + liburu sorta*

2. kategoria: 17-20 urte beteko dituztenak (2008 eta 2005 urteen artean jaiotakoak)

Talde lanak 650 €

Banakako lanak 200 € + liburu sorta*

Publikoaren saria:** 300 €

Ikus-entzunezko lan onenaren saria*:** 300 €

Goian aipatutako sariei dagokien atxikipen fiskala aplikatu zaie.

Aurkeztutako lanek bai lehiaketa orokorrean bai lanean adierazten duten udalerriko tokiko lehiaketetan parte-hartuko dute. Kontuan izan herri guztiek ez dutela Beldur Barik tokiko lehiaketarik antolatzen.

**50 eurotan baloratutako genero perspektiba lantzeko ipuin bilduma, liburu-denda txiki baten eskutik.*

***Publikoaren saria herri-bozketan boto gehien lortzen duen lanari emango zaio (edozein adin tartekoa izanik) baldin eta lan hori Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean badago.*

****Ikus-entzunezko lan onenaren saria Beldur Barik Jarrera! adierazteko kalitatezko komunikazio artistikoko baliabideak edota kodeak erabili dituen kategorietako edozein lani emango zaio, edozein adin tartekoa izanik.*

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik uzteko eskubidea dute. Sarietako irabazleek beren lanaren eskubideak Emakunderi lagatzen dizkiote, gazteriari zuzendutako kanpainetarako erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.

BASAURIko tokiko lehiaketaren sariak:

Aurkeztutako lanek, azaldutako baldintza guztiak betetzekotan, aukera izango dute bai Lehiaketa Orokorrean baita Basauriko 2025 Tokiko Lehiaketan ere parte hartzeko.

1. Kategoriako SARIAK:

Taldeka: 370 €

Banaka: 80€

2. Kategoriako SARIAK:

Taldeka: 370 €

Banaka: 80€

LEHIAKETAREN EBAZPENA

Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute: proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak, aurreko edizioko irabazleak eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da bi kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

Lan sarituak ezagutzera emango dira **2025eko azaroaren 28an**, Beldur Barik Topaketa Orokorrean.



Basauriko 2025 Tokiko Lehiaketaren epaimahaia Berdintasun Sailak zehaztutako udalerriko emakume mugimendu eta mugimendu feministarekin lotura duten gizarte-eragile esanguratsuek osatuko dute.

Basauriko Tokiko Lehiaketaren irabazleak, MARIENEAn – Basauriko Emakumeen Etxean, ezagutzera emango dira,abenduaren lehenengo astean zehar.



HERRI BOZKAKETA

Epaimahaiak aldeztu aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa, hain zuzen ere, Beldur Barik Jarrera irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin (oinarrietako lehen puntuak jasota datozenak). Horiek izango dira herri bozketara pasatuko diren lanak.

Publikoaren saria izendatzeko herri bozketa sistema azaroaren 15ean aktibatuko da, goizeko 08:00etan. Parte hartze saria irabaziko du azaroaren 20ko 23:59etan bozka gehien eskuratu dituen lanak. Izan ere, egun eta ordu horretan, bozketa prozesua itxi egingo da.

Bozketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Facebook, Tik Tok eta Instagram bidez.

Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, mezu elektronikoko masiboak sorrarazteko aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena, etab.), publikoaren saria hutsik gera liteke.

LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketara aurkeztutako parte hartzaileek lana erabiltzeko baimena ematen diote Beldur Barik Programari, ikus-entzunezko zein inprimatutako materialak sortzeko, promozionatzeko eta hedatzeko. Parte hartzaileek, gainera, honako ekintza hauetara baimentzen dute programa:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzera eta proiektatzera (Topaketan, programaren aurkezpen saioetan, etab.)
- Lanak egokitzea proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara.
- Laneko irudiak edo pasarteak erabiltzera programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak, etab.).

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programa harremanetan jarriko da formularioan zehaztutako kontakturako pertsonarekin.

Norbait klausula horiekin ados ez badago, antolatzaileei idatziz jakinarazi beharko die. Lehiaketako antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik egonez gero. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute, antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dauden Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europar Legebiltzarreko eta datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegian ezarri dena betez, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazten du emandako datu pertsonalak Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako fitxategi automatizatu batean sartuko direla, datuen tratamendua egiteko. Datuak ez zaizkio hirugarren bati emango, tartean legezko obligaziorik ez bada behintzat, eta ez zaizkio hirugarren herrialderen bati jakinaraziko. Datu hauen erabilera bakarra Emakunderen Beldur Barik programaren kudeaketara mugatzen da eta pertsonaren onespenean oinarritzen du bere tratamendua.

Interesdunek legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide ere. Datuen babesaren inguruko informazioa:

www.euskadi.eus/proteccion-datos

ANTOLAKETA

Lehiaketa Emakundek antolatzen du, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, Berdinsareak eta EUDELe bultzatzen dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzarekin.

Informazio gehiago: www.beldurbarik.eus

Idazkaritza Teknikoa (Parean Elkartea): info@beldurbarik.eus

Harremana: 843 740 288

Basauriko Udal Berdintasun Saila
MARIENEA – Basauriko emakumeen etxea
<https://berdintasuna.basauri.eus/es/1era-2kain>

I. ERANSKINA

AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....andreak/jaunak, adinez nagusi,

.....zenbakidun NAN duena, eta.....

jaunak/andreak, adinez nagusi,zenbakidun NAN duena,
helbidean
dutenak,.....telefono zenbakiarekin,

..... adingabekoaren (..... urte dituen
eta e-maila duena) ama / aita (edo tutore), eta beraz,
legezko ordezkari, diren aldetik.

ADIERAZTEN DUGU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako
Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan
ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ,

gure.....alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte
hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak
onartzen ditugu.

BAIMENA EMATEN DUGU, BERARIAZ, askatasunez, espezifikoki, informatuta eta
zalantzarik gabe Beldur Barik Lehiaketan parte hartzen duen gure alabari edo semeari
eragiten dioten datu pertsonalen tratamenduari.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n



** Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, bere 7. artikuluan xedatzen du pertsona adingabe baten datu pertsonalen tratamendua 14 urtetik gorakoa denean soilik oinarritu ahal izango dela bere baimenean. 14 urtetik beherakoen kasuan, guraso-agintearen edo tutoretzaren titularraren adostasuna baldin badago soilik izango da zilegia*

II. ERANSKINA

IKASTETXEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK
PARTE HARTU AHAL IZATEKO.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....

..... andreak / jaunak, adinez
nagusi, NAN zenbakiarekin, helbidea.....

.....n, telefono-zenbakia
eta e-maila
dituenak, ikastetxearen edo
elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-ordezkarien
baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren
Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege
Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko,
emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak
onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n

III. ERANSKINA: IZEN-EMATE FITXA

Lanaren izenburua:	
Lanaren esteka:	
Kategoria:	☐ 12-16 URTE ☐ 17-20 URTE
Udalerria:	
Lurralde Historikoa:	

(azpimarratu edo koloreztatu aukeratutako erantzuna)

1. Aurkezpen modalitatea: ☐ Banakakoa ☐ Taldeka

2. Partaide kopurua:

Neska kop.: ____

Mutil kop.: ____

Beste identitateak kop.: ____ Zeintzuk? (aukera):

3. Partaideen izena-abizenak eta adinak:

4. Parte hartzailearen edo taldeko ordezkariaren izen-abizenak:

5. Parte hartzailearen edo taldeko ordezkariaren e-posta:

Eskolako, Gaztelekuko edo beste erakunde bateko lana bada, aipatu izena:

IV. ERANSKINA: BALORAZIO FITXA

1. Norbaiten laguntza jaso duzue lana egiteko?

☐ Bai Nor/nortzuk? ☐ Ez

2. Zertan lagundu dizue?

☐ Bideoaren grabaketa eta edizioa ☐ Ideiak eta edukia ☐ Beste batzuk

3. Noiz hasi zineten lana prestatzen?

☐ Iraila ☐ Urria ☐ Azaroa

4. Beldur Barik buruzko formakuntzaren bat egin duzue?

☐ Bai ☐ Ez

Zein? Gaia, lekua, ordu kopurua...

5. Beldur Barik-eko webgunera jo duzue informazioa edota ideien bila?

☐ Bai ☐ Ez

6. Beldur Barik-eko sare sozialetara jo duzue informazioa edota ideien bila?

☐ Instagram ☐ Facebook ☐ Tiktok ☐ Spotify ☐ Ez

7. Nola baloratuko zenukete zuen esperientzia 1etaik 5era? (1 baxuena eta 5 altuena dela)

☐ 1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐ 5

